



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINO SALA
Segurtasun Salburuzkidea
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico





Aurkezpena

Liburu honen helburua ez da gidari, txirrindulari eta oinezkoen zirkulazioaren legezko alderdiak azpimarratzen dituen gida didaktiko bat erakustea soilik, baita elkartasun balioak ematea eta hiru kolektibo horien artean elkarbizitza eta tolerantzia sustatzea ere.

Elkar ulertzea sustatu nahi da, batez ere, istripuak –gehienetan zorigaiztokoak dira kolektibo horietako bat baino gehiago tartean badago-, baina baita trafikotik eta eguneroko estresetik eratorritako egoera ezatseginak ere saihesteko: ahozko liskarrak, erasoak eta errepidean ausarkeriazko egoerak.

Azken batean, eskuliburu honek erakusten du, ongi eta pazientziaz jokatzuz, errepidean guztiok dugula gure lekua. Aukera bat baino, esaera horrek bidea erabiltzen duen ororen betebeharra izan behar luke, oinezkoa, txirrindularia nahiz gidaria izan.

Editorren oharra:

Irakurketa errazteko, liburu honetan erabiletako hitzak, mota kontutan hartuz, maskulinoa eta femeninoa bateratzen dute.



Aurkibidea

Horria

1. Kapitulua. GIDARIA 6

1. Gidaria eta hiria	7
2. Gidaria eta oinezkoa	8
3. Gidaria eta txirrindularia	11
4. Gidaria eta gainontzeko gidariak	14
5. Gidaria eta ingurumena	17

2. Kapitulua. TXIRRINDULARIA 19

1. Txirrindularia eta gidariak	19
2. Txirrindularia eta oinezkoa	21
3. Txirrindularia eta gainontzeko txirrindulariak	23
4. Txirrindularia mendian	24

3. Kapitulua. OINEZKOA 25

1. Oinezkoa eta gidariak	25
2. Oinezkoa eta txirrindularia	27

4. Kapitulua. BIDEAREN GAINONTZEKO ERABILTZAILEAK 29

1. Kuatrizikloak edo miniautoak	29
2. Nekazaritzako ibilgailuak eta ibilgailu bereziak	29
3. Galtzadan dauden animaliak	30

5. ERANSKINA 32



1. Gidaria

Guztira 107 pertsona hil ziren 2004an Euskadin trafiko istripuan. Ia 700 larriki zauritu ziren. Estatistika gogorra da, baina horrek gidari guztiei hausnarrarazi behar die trafiko arauak betetzearen garrantziari buruz eta, batez ere, bidea erabiltzen duten gainontzekoak errespetatzeko beharrari buruz.

1. Gidaria eta hiria

Hiria da gidari eta oinezkoen arteko elkarrekin-tza-agertoki nagusia. Bi kolektiboak, 70. hamarkadako amaierara arte, arazo handirik gabe bizi ziren elkarrekin Euskadiko hiriburu eta herri nagusietan. Hala

ere, azken 30 urteotan Euskadin izan den ibilgailu kopuruaren gehikuntza etengabe eta geldiezinak, egun autoen eta oinezkoen arteko harremana okerragotu du.

Gertakari horrekin batera botere publikoek ahaleginak egin dituzte trafikoaren premiazko arazoari irtenbideak aurkitzeko, esaterako, ingurabideak eraikiz, kaleak oinezkoentzat bihurtuz edo aparkalekuak eraikiz. Hala eta guztiz ere, hiritik autoz ibiltzea ez da erreza. Are gehiago, erabat beharrezkoa denean soilik egin beharko genuke. Jakitun izan behar dugu autoa erabiltzeak gure gizartearentzat hainbat arazo ekartzen dituela: kutsadura gehitzea, zarataren aragotzea, auto-ilarak...



Gaitz horiei guztiei oinezkoen, txirrindularien eta gidarien arteko gatazka handitzea gehitu behar zaie eta ondorioz, ez itxurazko egoerak gertatzen dira.

ZER EGIN BEHAR DUDAN

- ✎ *Autoa etxean utzi. Garraio publikoa edo bizikleta bezalako beste lokomozio-bide alternatiboak erabili. Hiriak eta oinezkoek eskertuko dizute. Motoa ere autoa baino irtenbide zentzuzkoagoa da.*
- ✎ *Beste neurri interesgarri bat autoa eza-gunekin, familiakoekin edo lankideekin partekatzea da. Batzuetan, hiruzpalau auto erabiltzen dira pertsonak garraiatzeko auto bakarra erabili daitekeenean. Praktika horren inguruan mugimendu sozial bat dago eta Euskadiko hainbat udalek ere parte hartzen dute. Informazio gehiago lortzeko jo helbide honetara: www.compartir.org*



Erabil ezazu garraio publikoa.

2. Gidaria eta oinezkoa

(Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 121. artikulutik 125.era)

Jarraian gidari orok oinezkoekin elkarbizitza-giroa sustatzeko kontuan hartu behar lituzkeen arau batzuk aipatuko ditugu:

- Gida ezazu lasaitasunez, abiadura mugak errespetatuz, ez ezazu bat-batean azeleratu eta balaztatu. Ez du zentzurik abiadura gehitzeak urrunean errepidean gorri dagoen semaforo bat ikusten bada. Gainera, zentzuz gizatzeak segurtasun handiagoa dakar eta erregai-kontsumo txikiagoa.



Eztitu abiadura.

- Oinezkoen eta gidarien arteko betiko gatazketako bat oinezkoentzako pasaguneetan gertatzen da. Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 124. artikuluan gidariari gelditzeko bete-beharra ezartzen dio, baina honek askotan ez dio araudiari jaramonik egingiten. Errespetatu ezazu legeria eta oinezkoak errespetatuko dituzu. Utzi iezaiezu pasatzen, eskertuko dizute.

Arau hausten baduzu eta zure jokabidea gaitzesten badute, jakin ezazu ez duzula arrazoirik.

- Gidari gisa berde dagoen semaforo bat aurkitzen baduzu, baina trafiko handia badago eta, argia aldatu bezain laster, zebra-pasagunearen erdian geratzeko aukera baduzu, ez ezazu aurrera jo, gera zaitetz lasai bidea hustu eta normaltasunez ibil zaitzekeen arte. Oinezkoen martxa errespetatu.
- Beste gatazka-iturrietako bat, normalean garaje edo gune pribatuetarantz doazen ibilgailuek espaloiak edo oinezkoentzako kaleetan sartzea da. Gogoratu, baimenduta badago, kontuz-kontuz gidatu behar duzula, oso abiadura txikian eta oinezkoei pasatzen utziz.
- Era berean, egoitza-kalearen seinalea duten tarteei arreta jarri. Gune horietan, gehienezko abiadura ezin da 20



Ondo aparkatu.



Utzi igarobidea oinezkoiei.

kilometro ordukoa baino handiagoa izan. Gainera, oinezkoak du lehentasuna eta jolasak eta kirolak garatzeko galtzada hartzea baimenduta dago.

- Semaforoetan, pazientzia izan adineko pertsonekin edo mugikortasun arazoak dituztenekin. Baliteke galtzadan jarraitzea semaforoak kolorez aldatu duenean. Ez itzazu larritu, errespetuz jokatu eta ulerkorra izan zaitetz.
- Hiriaren barruan arriskurik handiena eragiten duten egoeretakoa bat atzeramartxa ematen duen auto batek eragindakoa da. (Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 80. eta 81. artikulak) Arau orokor gida, gogoratu maniobra hori debekaturik dagoela. Izan ere, autoak ahal duen guztietan aurrerantz jo behar du. Murrizketa horretatik salbu daude aparkatzeko beharrezkoak diren maniabrak.

- Kasu honetan, kontuan izan ikuspena oso murriztua dela. Baliteke oinezko bat hain zuzen zure autoaren atzetik pasatzea unerik desegokienean. Gainera oinezkoa haur bat bada, bera hor dagoela antzematea oso zaila da bere altuera kontuan izanda. Horregatik guztiagatik, oso kontuz aparkatu behar duzu, gertu inor ez dabilela ziurtatuz. Lagun batekin bazaude, eska iezaiozu autotik jaitsi eta maniobra zaintzeko.
- Ez zaitez ibili musika oso altu duzula. Errespetatu oinezkoek soinu zaratatsuak ez entzuteko duten eskubidea. Zaratarik gabeko hiri hiri osasuntsua goa da. Gainera, istripu bat izateko arriskua handiagoa da, entzumenik gabe ibiliko baitzara.

BA AL ZENEKIEN...

Mapfre Fundazioaren ikerketa berri baten arabera, gidatzen zoazen bitartean mugikorrarekin hitz egiteak galarazi egin du hamar seinaletatik seiari arreta jartzea. Mugikorra hirian erabiltzen baduzu, kaltetu nagusiak oinezkoak dira, egoera horietan harrapatzeko arriskuak izugarri egiten baitu gora.

...?

ZER EGIN

Pilota batek ustekabeen errepidea gurutzatzen badu.

- ✍ *Hala bada, murriztu abiadura eta arreta areagotu, harekin jolasean ari ziren haurrak ez baitira urrun izango eta galtzadan ager daitezke zuk han daudela antzeman gabe.*



Nagusiekin pazientzia eduki.



3. Gidaria eta txirrindularia

Urtero Espainiako estatuko errepideetan ehun txirrindularitik gora hiltzen dira. Estatistika beldurgarria da eta gidari guztiei hausnarrarazi behar lieke. Are gehiago, Bide Segurtasunerako Mapfre Fundazioak duela gutxi egindako ikerketa baten arabera, hamar ezbehar larrietatik bederatzitan, txirrindulariek autoen aurka talka egin zuten edo autoek harri-patu zituzten.

Gainera, 1994an guztira 152 txirrindularik galdu zuten bizia hainbat zirkulazio istriputan. Beste 2.200 larriki zauritu ziren. Hilkortasun tasa txikiena izan zen aldian (2001) hildakoen kopurua 74koa izan zen. Gizarte honentzat zerga altuegia da hori, batez ere soilik beren kirol gogokoenez gozatzeri egunero irteten direnentzat.

Izan ere, 50 kilometro orduko abiaduran txirrindulari baten aurkako talka zuzen batek bere bizikletarekin batera hamargarren pisuko altuerara igo lezake. Nabarmendu behar da ere bai harrapatze hilkor gehienak errepide zabal eta ikuspen ona zutenetan gertatu zirela.

Kontuan izan beharreko datu gisa, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzak duela gutxi egindako inkesta batek erakutsi duela pertsonen %46ak uste duela Euskadin gidariak "ez dutela inola ere txirrindularia errespetatzen".

ZER EGIN BEHAR DUZUN

Txirrindulari bat aurreratzen duzunean, errespetatu ezazu beti metro eta erdiko alboko gutxieneko tartea, legeak behartzen duen bezala. Gainera, txirrindulari bat gerturatzen denean murriztu abiadura eta arreta areagotu, mugimendu arraro batek, haize bolada batek edo errepidean dagoen oztopo batek egoera erabat alda baitezakete.





Hirietan, txirrindulariak bide erditik joan daitezke.

ZER EGIN BEHAR DUZUN

- ❖ Gogora ezazu bizikletan doan pertsona bat aurreratu baino lehen ez baduzu legeak ezarritako tartea mantentzen ez duzula soilik legea hautsiko, baizik eta gainera bizitza bat arriskuan jarriko duzula.
- ❖ Azpimarratu behar da abiadura handian aurreratzeak 'rebufo' efektua deritzona eragiten duela, txirrindulariari egonkortasuna galarazten diona. Antzekoa gertatzen da tona-kopuru handiko kamioi batek zure autoa abiadura handian aurreratzan duenean.
- ❖ Aurreratzeko unea da, zalantzarik gabe, txirrindulari baten segurtasunerako unerik arriskutsuena. Hala ere, ez da bakarra. Tunel-seinaleak eragiten dien elkarguneak, errotondak edo zeharbideak ere bizikletan dabiltzan pertsonen segurtasunerako bereziki arriskutsuak dira. Arreta areagotu eta pasatzea erraztu iezaiezu.
- ❖ Ez zaitetz aztoratu txirrindularia erreiarren erditik badoa. Hirian eta jaitsiera luzeetan, adibidez, hori egiteko eskubide osoa du, horrek zure martxa geldiarazten badu ere. Hiriar-teko errepideetan adeitasunez jakin-arazi iezaiozu ez dabilela behar duen moduan. Ez ezazu klaxona gehiegi edo zakar erabili.
- ❖ Ez erabaki zigorra zeuk ezartzea trafiko-arau bat hautsi duen txirrindulariari eskarmentua ematen saiatuz, beldurtzeko asmoz zure ibilgailuarekin ondotik pasatuz. Zure ustez ezusteko soil bat besterik ez dena ezbehar bat bihur daiteke. Seguru zuk ere inoiz le-



gea hautsi duzula eta, horregatik, inoiz ez zaizu ondotik ia ukituz tona askoko kamioi bat pasa.

- ✖ Beti jarrera baikorra izan ezazu. Ez egotzi txirrindulariei zure gaitz edo atzerapenen errua. Izan ere, esperientziak erakusten du bizikletan doan pertsona bat era egokian aurreratzea-gatik ez duzula irratia sintonizatzean edo ibilgailuaren barruan zigarreta bat piztean baino denbora luzeagoa galduko. Gogora ezazu 30 segundoko atzerapena ez dela ezer txirrindulariari eragin diezaiokezun arriskuarekin alderatuta.

- ✖ Hirian oso garrantzitsua da atzerako is-piluetatik begiratzea ibilgailutik semaforo batean jaitsi baino lehen. Atea irekitzean, bai zuk baita zure lagunek ere txirrindulariren bati istripu larria eragin diezaiokezue. Trafikoko araudi berriak alderdi horri arreta berezia jarri dio.
- ✖ Txirrindulari denak ez dira berdinak. Kolektibo guztietan bezala bada legea hausten duenik eta bada, aldiz, gainontzeko ibilgailuei ibiltzea ahalik eta gehien errazten dienik ere. Dena den, gogoratu zirkulazio-katearen maila ahulenetakoa direla eta euren eskubideak errespetatuak izateko eskubidea dutela.



Kontuz kotxetik jaitsieran.



Laisatuna, bolantean.

BA AL ZENEKIEN...

Gidariek euren autoen abiadura soilik 5 km/orduko murriztuko balute, txirrindularien kolektiboaren hilkortasun tasa %25 jaitziko litzateke.

...?

4. Gidaria eta gainontzeko gidariak

Euskadin ibilgailuen kopurua 1.138.000koa da. Zifra horrek gora egiten du urtero; horrek esan nahi du geroz eta pertsona gehiago jartzen garela bolantearen aurrean. Presak, auto-ilarak... Hiriko bizitza-erritmoak batzuetan gainerako gidariekin era lotsagabea eta, batez ere, era ausartegian jokarazten gaitu.

ZER EGIN BEHAR DUZUN

- ✍ *Gidatzeko jarraibide lasaia izan. Bolantearen aurrean jartzean utzi alde batera oldarkortasuna. Eraiki dezagun guztion artean hiri atseginago eta adeitsuagoa.*
- Ez iezaiezu gainontzeko gidarien probokazio eta irainei jaramonik egin. Erakutsi zu ongi hezitakoa zarela eta gatazkak era baketsuan konpon daitezkeela. Elkarriketa eta malgutasuna tolerantziarik ezaren aurrean.
- Zure bizia edo beste erabiltzaileena arriskuan jartzeko adinako arduragabekeria larri baten edo gidatze ausartegi baten lekuko izan bazara eta hori salatu nahi baduzu, dei egin iezaiozu



Ez aldatu kamila etengabe trafikoa geldo dagoenean.

ezazu behin eta berriz zure ibilbidea aldatu, mugimendu horiek bidea are pilatuago egotea eragingo dute eta. Gainera, ez ezazu sekula bazterbidea erabili ilaratik irteteko, hori jokabide zakarra eta insolidarioa da, liskar neurrigabe eta bortitzak eragin ohi dituen.

- Istripua dela eta ilarak sortzen badira, arreta handiz ibili ezbeharra gertatu den gunera iristen zarenean. Murritzutur abiadura, baina sekula ez geratu kuxkuxeatzeko edo ezbeharren ondorioak ikusteko. Hori egiten baduzu, zirkulazio moteldu eta oztopatuko duzu. Hori, 'behi-efektua' deritzona da eta, aldi berean, beste ibilgailu batzuekin kolpatzea edo talka egitea ekar dezake.

Ertzaintzari. Horregatik ez zara salata-ri bat izango, herritar baten betebeharra beteko duzu soilik.

- Ez ezazu sekula zigorra zuk zeuk jarri, ezta trafikoko eztabaidak zure kabuz erabakitzen saiatu ere. Zure senetik atera zarela ikusten baduzu, gera zaitetz ibilgailuaren barruan.
- Auto-ilararen batean harrapatuta ikusten baduzu zure burua, saia zaitez klaxona ez jotzen. Gogora ezazu debekatua dagoela eta kutsadura akustikoa hiriko arazo nagusienetako bat dela. Autobide edo autobia batean bazaude, jarrai ezazu zure erreian. Ez



Saiestu norgehiagokak.

ZER EGIN

Bi gidarik zirkulazioa oztopatzen badute eztabaida bat dela eta.

- ✘ *Lehendabizi, ez ezazu sekula zure ibilgailuko klaxona jo presa sartu edo protesta egiteko. Jokabide horrekin lehenagotik sututa zegoen tentsio-egoera areagotuko duzu. Giroa lasaitu behar da, ez egoera gehiago xaxatu.*
- ✘ *Eztabaida luzatzen bada eta oraindik modu baketsuan ari badira, saia zaitez bitarteko izaten, jarrerak bat egiten, egoera arindu ezazu. Ulertarazi iezaezu ez duela merezi 'ikuskizun' hori egiteak.*
- ✘ *Liskarra okerragotzen bada, dei egin polizia. Gainontzeko gidari eta oinezkoak ohartarazi. Gidariekin liskarra bertan behera utzi lezakete lekuko asko daudela ohartzen badira.*

ZER EGIN

Zauriturik gabeko istripu arin batean ikusten badut nire burua.

- ✘ *Lehendabizi, beste gidari edo gidariekin hitz egin. Jarrera baikorra erakutsi, laguntzeko prest zaudela adieraziz. Bi alderdiak ez badatoz bat ezbeharra nola gertatu den diagnostikatzeko, adiskidetasunezko istripu-aitorpena bete dezakete. Kasu horretan, saia zaitezte ibilgailuak bazterrerara eramaten horiek zirkulazioa oztopatzen badute.*
- ✘ *Nola gertatu den eta arduraduna nor izan den ados ez bazaudete Udaltzaingoari dei diezaiokezue argiketa bat ireki eta gertatutako iker dezan. Kasu horretan, ibilgailuen aseguru-etxeak izango dira kalteak ordaintzerakoan ados jarriko direnak.*



Larrialdietan deitu 112ra.



ZER EGIN

Istripu larri bat izan badut

- ✎ *Lehendabizi, biktimez arduratu behar da. Lasaitasunez jokatu. Gogora eza-
zu larrialdi zerbitzuei dei egiteko be-
tebeharra duzula. Ez itzazu zaurituak
mugitu. Laguntza iristen ez bada eta
istripua izan dutenak oso larri ba-
daude, denborak aurrera egin ahal
bere bizia arriskuan badago, autoes-
kolan ikasitako lehen laguntzako
ezagutzak aplika itzazu. Ez ezazu ari-
negi jokatu, itxoin ezazu, ahal bada,
anbulantziak iritsi arte. Egoera larri
batean zalantzarik izanez gero, SOS
DEIAK 112 larrialdi zerbitzuekin ha-
rremanetan jarri eta euren aholkuak
jarrai itzazu.*

BA AL ZENEKIEN...

Urtero Estatuan 10.000 trafiko-
eztabaida egoten dira adituen arabera.
Horietatik %15 liskar bortitz batean
amaitzen da.

...?

5. Gidaria eta ingurumena

Auto gehienek funtzionatzeko erregai fosilak erabiltzen dituzte. Energia-iturri horiek motorrean erretzeak atmosferara gas kutsatzaileak botatzea eragiten du, besteak beste karbono dioxidoa (CO₂), planetaren gehiegizko berokuntzaren eragile nagusia. Gertakari hori, egun, gi-zateriaren ingurumen-arazo nagusiena



da. Jakitun izan behar zara, zure auto pribatua erabiltzen duzun bakoitzean, naturaren suntsipen globala areagotzen ari zarela.

ZER EGIN DEZAKEZUN

- Lehenengo neurria, liburu honetan lehen azaldu dugun bezala, gure ibilgailua ezinbestekoa denean bakarrik erabiltzea da. Azkenean etxetik zure ibilgailuan irtetea erabakiz gero, jarraian aholku batzuk eskaintzen dizkizugu eragin ekologikoa murrizteko.
- Bioerregaiak erabili zure autoaren motorrak onartzen baditu. Bioetanola gasolinaren ordezeko ona da, zereal-haziak ehotuz, biomasa prozesatuz eta alkohola gehituz lortutako erregai ekologikoa baita. Beste aukera bat biodiesela –landare- eta hondakin-

olioekin lotuta dagoena- erabiltzea da; Euskadiko hainbat gasolindegitan aurki daiteke.

- Murriztu abiadura. Gogoratu orduko laurogei kilometrotik gora, gasolina kontsumo izugarria behar dela abiadura gutxi igotzeko.
- Zure autoak ahalik eta gehien iraun dezan saiatu. Motorra behar bezala mantendu. Eta, batez ere, alda ezazu autoz benetan behar duzunean, ez utzi moda edo ezarritako behar sozialek eragiten. Desegiteko lekura bidaltzen diren auto asko primeran da biltza.
- Azkenik, ez ezazu objekturik ezta zaborrik ere leihatilatik bota. Ezta zigarreretarik ere. "Txerrikeria" bat izateaz gain, baso-suteak eragin ditzakete eta debekatuta dago.



2. Txirrindularia

1. Txirrindularia eta gidaria

Udako hilabeteetan astebururo bi milioi pertsona baino gehiago irteten dira Estatu errepideetara bizikletan ibiltzera. Eus-kadin 120.000 baino gehiago dira. Txirrindulariak gogoratu behar du ez dabilela bakarrik bidean. Izan ere, trafikoaren bolumenak eta auto kopuruak gora egiten du urtero. Testuinguru horretan, bi gurpilen zaleak legea zehatz-mehatz bete behar du eta, gainera, gainontzeko ibilgailuen zirkulazioa ahalik eta gehien erraztu behar du.

ZER EGIN BEHAR DUZUN

✎ Txirrindulariaren segurtasunerako alderdi nagusia bizikleta egoera onean edukitzea da. Berraztertu pneumatikoak eta bizikletaren beste zati garrantzitsuak, adibidez, direkzioa eta balaz-

tak. Ez zaitetz sekula errepidera irten egoera txarrean dagoen materialarekin, zure segurtasuna eta zure ingurukoena arriskuan jarriko baituzu.

✎ Bereziki garrantzitsua da era berean gainontzeko gidariekin ikusteko moduan ibiltzea. Horretarako, kolore biziko arropak janztea aholkatzen da. Gaez, herrietatik kanpo eta tunelaren seinaleak eragiten dien tarteetan, baita ikuspena urria den egoeretan ere, derrigorrezkoa da aurreko eta atzeko argiak erabiltzea. Halaber, atzeko distiragailu edo katadioptriko bat erabiltzea derrigorrezkoa da egunez ere. Azkenik, eguzkia sartu ondoren, ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko 22. artikulua 150 metroko distantziara ikus daitekeen arropa islatzaile bat janztera derrigortzen du.



- ✖ Ez ahaztu inoiz kaskoa. Gogoratu hiriar-
teko bideetan hori erabiltzea derrigorrez-
koa dela. Nahiz eta egia den bizikleta-
ohitura handia duten Holanda edo Dani-
marka bezalako herrialdeetan kaskoa
erabiltzea hautazkoa den, frogatuta dago
eroriz gero segurtasun-elementu ga-
rrantzitsua dela eta, neurri txikiagoan,
abiadura txiki edo murriztuan gertatzen
diren harrapatzeetan. Ez iezaiozu jara-
mon egin ibilgailu batek harrapatuz gero
babesgarri horrek ezertarako balio ez
duela esaten duenari, izan ere, errepide-

an aurreikusi ezin diren gauzak gertatzen
dira eta auto batek harrapatzeko arris-
kuaz gain badira bestelako arrisku egoe-
rak ere.

- ✖ Zirkulazio-arauak zehatz-mehatz bete
itazu eta arreta berezia jarri seinaleei.
Gogoratu 'stopak', semaforoak eta pa-
satzen uzteko 'Utzi pasatzen' seinaleak
ez direla errepidean besterik gabe koka-
tu, baizik eta elkargune eta bideguru-
tzeetan, txirrindulariaren segurtasunera-
ko leku arriskutsuetan, zirkulazioa erre-
gultatzen dute.

BA AL ZENEKIEN...

Kaskoa bizitza da eta horren erabilpen
maila oso txikia da. Eusko Jaurlaritzak
2003an egindako ikerketa baten arabera,
14 eta 44 urte bitarteko txirrindularen
%50 bakarrik irtenen da errepidera
segurtasun-gailu horrekin. Adin-tarte
horretan bertan, inkesta egindakoan
arteana ia beti erabiltzen zutela erantzun
zutenen portzentajea soilik %30 zen.

...?



Mantendu zure bizikleta beti ondo zainduta.



Aukeratu ibilbide egokiena (seguruena).

- ❧ *Gidarien mugimenduak ahalik eta gehien erraztu, batez ere taldean bazabiltza. Gogoratu errepidea denona dela. Ahal bada galtzadatik urrunen dagoen bazterbideko zatitik ibil zaitez. Errespetatu lehentasun-arauak errotonda eta bidegurutzeetan sartzean.*
- ❧ *Adierazi zure mugimenduak. Gogoratu ez zaudela bakarrik errepidean eta beraz, bi-dearen gainontzeko erabiltzaileei zure asmoak ohartarazi behar dizkiezu. Nagusiki adierazi behar duzuna ondokoa da:*



Markatu zure helbidea aldeaz aurretik.

- ❧ *Gidariekin adeitsua izan zaitez. Beren jokabidea gaitzetsi behar baduzu, egin ezazu zentzuz. Semaforo batean geldituta badago, ez ezazu barruan doana iraindu eta, are gehiago, ez ezazu urratzailearen ibilgailua kolpatu. Jokabide ausartegi bat ikusi eta salatu nahi baduzu, autoaren matrikula idatzi eta berehala ohartarazi Ertzaintza. Ez ezazu inoiz zigorra zuk zeuk aplikatu.*



Espalioetan eta ohinezkoen guneetan ezin da bizikletan joan.

2. Txirrindularia eta oinezkoa

Interes eta alderdi batzuetan bat etorri arren –bi kolektiboak motor-ibilgailuen biktima izan daitezke-, txirrindulari eta oinezkoen arteko harremana beti izan da asaldatua eta orain ere hala izaten jarraitzen du. Bi norabideetan ematen diren gaitzespenak ia beti bi taldeetako batek bereziki bestearentzat gordetzen den lekua hartzen duenean ematen dira. Espaloiak eta bidegorriak orduan etengabeko gatazka-iturri bihurtzen dira.

Duela gutxi Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta batek erakusten du soilik herritarren %15ek uste duela txirrindularia "oso adeitsua" dela oinezkoekiko; %20k uste du "ez oso adeitsua" edo "ez adeitsua" dela.

Ikerketa berak ziurtatzen du txirrindulariek jasandako istripuen %4 oinezko bat harra-patzegatik izaten dela.



ZER EGIN BEHAR DUZUN

- ✎ Bizikletan bazoaz errepidetik edo bizikletak baimenduta dauden bideetatik ibili behar zara. Ez ezazu sekula espaloirik ezta oinezkoentzako biderik ere hartu. Leku horietako bat gurutatzatu behar izanez gero, jaitsi zaitez bizikletatik. Horrek ez dizu atzerapenik eragingo. Kontuan izan pedalei poliki eragitearen, balazta jarrita eta oinezkoak saihestuz –gehienak zu hortik ibiltzeagatik haserretuta dabiltzanak– eta oinez jarraitzearen arteko ezberdintasuna, luzarora, ia hutsala dela.
- ✎ Hiritik zoazenean zuhurra izan zaitez. Baliteke oinezkoren batek inolako arrazoirik gabe galtzada hartzea. Arretaz jokatuz semaforoetan eta oinezkoentzako pasaguneen inguruan. Kontuz parke, eskola, haurrak dabiltzan gune eta adinekoentzako egoitzetatik gertu dauden guneetan. Izan ere, haur eta adinekoen erreakzio eta mugikortasun gaitasuna helduena baino txikiagoa da.

BA AL ZENEKIEN...

Txirrindulari eta oinezko baten arteko talkak, 25 km/ordura, zauri larriak eragin diezazkioke bai oinezkoari baita bizikletan doanari ere. Murriztu abiadura bien onerako.

...?

- ✎ Bidegorri batetik bizikletarekin zoazenean eta bereziki bizikletentzako den leku batetik doan oinezko batekin topo egiten duzunean, ez zaitez haserretu. Lehendabizi, gelditu beharrezkoa bada. Ez zaitez sekula pasa oinezko baten gertutik hura izutu edo eskarmentua emateko asmoarekin. Ez iezaiozu garrasi egin ezta era bortitzean gaitzetsi ere. Pentsa ezazu agian ez dela ohartu debekatuta dagoen zerbait egiten ari dela. Azalpen atsegin batek egindakoa uler-taraz liezaioke eta baliteke horrela hurrengoan bizikleten bidea ez erabiltzea.



ZER EGIN BEHAR DUZUN

✎ *Ibilera mistokoak (oinezkoak eta txirrindulariak) diren bideetan abiadura murriztu. Bi kolektiboen zirkulazioa bereizita dagoen bideetan, bizikletentzako dena bakarrik erabil ezazu. Arreta areagotu, batez ere aurreratzerakoan. Zuhurtasunez ibili.*

✎ *Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko 22. artikulua arabera: klaxona edo txirrina bat oso erabilgarria da oinezko-
ei zu hor zaudela jakinarazteko. Autoen kasuan erabilgarritasunik ez duen arren, motorren zaratarengatik eta gidaria autoaren barruan doalako, oso tresna baliagarria da oinezko-
ei eta gainontzeko txirrindulariei ohartarazteko.*

ZER EGIN

✎ *Oinezko bat harrapatzen badut: Lehen-dabizikoa lasai egotea. Zaurien larritasuna egiaztatu. Ez ezazu inoiz biktima mugitu ezta altxatzen lagundu ere. Aukera on bat istripua izan duenaren senitartekoren bati deitzea da gertatutakoa azaltzeko eta gertaera jazo den lekuan ager dadin eskatzeko.*



✎ *Bere egoera larria bada, ordea, dei ezazu SOS DELIAK 112 zenbakira. Ez ezazu inoiz ihes egin edo alde egiten saiatu, salatua izan zaitezke laguntzeko betebeharra ez betetzearen delituagatik. Kasu horietan, komeni da erantzukizun zibileko aseguru on bat kontratatua izatea oinezko bati eragin diezazkiokezun kalteak estaltzeko.*

3. Txirrindularia eta gainontzeko txirrindulariak

Taldean bizikletan ibiltzera zeure burua babesteko neurri on bat izan daitekeen arren, txirrindulariak kontuan izan behar du ere bai kirol hori taldeka burutzeak arrisku batzuk dituela. Era berean, kontuz ibili behar da gure aurkako norabidean doazen txirrindulariekin.

KONTUAN IZAN BEHAR DUZU

✎ *Norbaitekin batera joatean burutzen den ohiko akatsa gidatzean arreta murriztea da. Lagunekin goazenean seguruago sentitzen gara. Horri gehitzen badiogu berriketan eta giro ederrean goazela, emaitza errepidean jarritako arreta nahiko murriztea izan ohi da. Goza ezazu, baina saia zaitez kontzentrazioa ez galtzen. Gogoratu, gainera, talde batek ustekabe baten aurrean -txakur bat, norabide debekatuan doan auto bat...- erreakzio eta mugimendu gaitasuna bakarrik doan txirrindulari batena baino urriagoa dela.*

✎ *Kontuan izan ere bai taldean ibil daitekeela, baina ez tropelean. Hau da, gehienez, txirrindulariak binakako lerroan joan daitezke; ikuspena urria bada bata bestearen atzetik joan behar dira.*



Taldeetan joanda arreta haundiagoa eduki.

BA AL ZENEKIEN...

Duela gutxi Eusko Jaurlaritzak egindako inkesta baten arabera, txirrindulariek jasaten dituzten istripuen %7 beste bizikleta batzuen aurka talka egitegatik gertatzen dira.

...?

4. Txirrindularia mendian

Egunero hazten doa mendiko txirrindularitarako zaletasuna. Mendira irten behar baduzu, komeni da oinarritzko segurtasun neurri batzuk gogoraraztea. Kontuan izan behar da ere bai txirrindulariak bideak nekazaritzako eta lur guztietarako ibilgailuekin, eta, batez ere, mendizale eta txangoza-leekin partekatu behar duela.

ZER EGIN BEHAR DUZUN

- ▮ *Ibilbide berri edo inguru ezezagun batek bizikletan ibiltzera bazoaz, norbaite-*

kin joatea. komeni da. Gainera, garrantzitsua da telefono mugikor bat eta linterna txiki bat eramatea, baita janaria eta ura ere. Hori guztia oso erabilgarri izango zaigu galduz gero.

- ▮ *Beste neurri on bat lagun edo senitarte-ko bati egingo dugun ibilbidea zein den adieraztea da.*
- ▮ *Errespetatu itzazu ibiltariak. Gogoratu mendian sen onak pasatzeko lehentasuna beti ibiltariei ematen diela. Era berean, arreta areagotu ganadua dabilen lekuetan eta jaitsiera luzeetan. Kontuan izan animalia edo ibilgailuren bat azal daitekeela ustekabean edozein bihurgunetik irtetea.*
- ▮ *Ingurumena errespetatu ezazu. Ez itzazu energia-barratxoan bilgarriak ezta bestelako zakarrak bota.*



Mendian kontuz ibili.



3. Oinezkoa

Ehunka mila pertsona mugitzen dira oinez egunero Euskadiko hiri eta herrietako kaleetatik. Milioika joan-etorri dira eta beti ez dira behar adinako arduraz egiten. Oinezkoa, txirrindulariarekin batera, zirkulazio-kateko mailarik ahulena da. Komeni da zuhurtasuna areagotzea eta zure burua babesteko neurri nagusiak ezagutzea lasai eta segurtasunez ibili ahal izateko.

1. Oinezkoa eta gidaria

Euskadin, 2004an, ia 300 oinezko harropatu zituzten, erregistratutako trafiko istripuen %1. Portzentaje baxua da, baina

biktimentzako ondorio latzak dakartzana, oinezko baten karrozeria bakarra bere gorputza da eta. Kasu askotan, istripua oinezkoa beraren zuhurtziarik ezagatik gertatu zen. Semaforoak gorri daudenean pasatzea, kalea zirkulazioari arreta jarri gabe pasatzea edo gauez errepidetik ibiltzea dira gehien burutzen diren ausarkerietako batzuk.

ZER EGIN

✂ *Errespeta itzazu beti zirkulazio-arauak. Ez ezazu pentsa zuri ez dagozkizula oinezko zarelako. Gogoratu ezbehar-kopurua murriztea guztion lana dela.*

3. OINEZKOA

- ❖ Ez gurutzatu inoiz semaforoa gorri badago. Ibilgailurik ez datorrela dirudien arren, auto bat edozein unetan ager daiteke bestaldera pasatzeko denbora-rik eman gabe.
- ❖ Ez pasa argia berde jarri bezain pronto, egiazta ezazu lehendabizi autoak erabat gelditu direla. Segurtasun neurri ona da.
- ❖ Zebra-bideak. Gogoratu zuk duzula lehenetasuna, baina gurutzatzen hasi baino lehen egiazta ezazu autoa gelditu egin dela eta benetan pasatzen uzten dizula.
- ❖ Adinekoa bazara, arreta areagotu. Pentsa ezazu zure erreflexuak eta ikusmena ez direla lehengo berak.
- ❖ Kontuz aparkatzen ari diren autoekin. Ahal baduzu ez zaitetz atzera-martxa eman behar duen ibilgailu baten atzetik pasa.



Ohinezkoak beti errepidearen ezkerretatik ibili behar dira.

- ❖ Ahal baduzu ez zaitetz gauez hiriarteko errepideetatik ibili. Gogoratu beste biderik ez badago, galtzadako ezkerreko aldeko bazterbidetik joan beharko duzula. Era berean, gidariei zu hor zaude-la jakinarazteko atzera islatzeko gailu bat erabiltzeko betebeharra duzu. Gogoratu debekatuta dagoela autobide eta autobietan ibiltzea.



Ez zeharkatu inoiz errepidea modu honetan. Bilatu ezazu zebra bide bat.

- ✍ Azkenik, saia zaitez galtzada ez gurutzatzen telefono mugikorra darabilkizunean. Gidariei gertatzen zaien bezala, mugikorrak arreta galarazi diezazu eta egoera arriskutsua eragin.

BA AL ZENEKIEN...

Estatuan 2002an harrapatu zituzten oinezkoen %67 65 urtetik gorako adinekoak edo 14 urtetik beherako haurrak ziren.

...?

- ✍ Gidaria bazara eta matxura bat baduzu, gogora ezazu ibilgailua bidetik ahalik eta urrunen aldendu behar dela eta ibilgailutik irtetean txaleko islatzailea jantzi behar duzula. Hori egin bezain laster oinezkoa bihurtuko zara. Ez ezazu matxura konpondu zuretzat edo gainerako gidarientzat arriskutsua bada.
- ✍ Ausarkeriazko gidatze baten aurrean bazaude, saihestu gidariarekin izan dezakezun gatazka. Ez ezazu ibilgailua kolpatu ezta bere bidean jarri ere martxan jarri dadin eragozteko. Ertzaintzari edo Udaltzaingoari jakinarazi iezaezu gertatutakoa.



Bial hezkuntza denona da.

2. Oinezkoa eta txirrindularia

Euskal hirietan egunero gertatzen den egoera da: Gazte bat bizikletan doa espaloitik eta oinezko baten gogor gaitzesten dio bere portaera. Dirudienez oinezkoak eta txirrindulariak ez dira ondo moldatzen. Batak bestearen aurka duen haserre hori beti pizten da talde horietako batek bestearentzat bereziki den lekua hartzen duenean. Legeak argiak dira, baina tolerantzia ere sustatu behar dugu eta neurrian erreakzionatu behar dugu mota horretako "harra-patze bat" gertatzean. Azken batean, oinezkoak eta txirrindulariak bide-segurtasunaren mapako atal ahulenak dira.

ZER EGIN BEHAR DUZUN

- ✍ Lehendabiziko urrezko araua bereziki txirrindularientzat diren bideetatik ez ibiltzea da. Baina, nola ezberdindu zirkulazio mistoko gunek bereziki bizikletentzat direnetatik? Jakin dezazula, Euskadin, bizikleta-errei eta bidegorri gehienak behar bezala seinaleztatuta daudela. Horietan, oinezkoak ibiltzea debekatuta dago.



Peatoiak bizikletentzako bidegorrietan galasota daukate ibiltzea.

- ❖ Oinezkoak kontuan izan behar duen beste gauza garrantzitsu bat txirrindularia espaloian ibiltzeari dagokiona da. Zehazki debekatuta dago, espresuki baimendu eta seinaleztatutako oinezkoentzako zeharbideetan salbu. Zu oinezkoa bazara eta txirrindulari batekin topo egiten baduzu debekatuta duen gune batean, ohartarazi modu onean txirrindulariari irregulartasun bat egiten ari dela. Argia izan zaitez, baina ongi hazitakoa.
- ❖ Zakurrearekin bazabiltza, lotuta eraman ezazu. Askatuta badaramazu bizikletan doazen pertsonen gainera salto egin edota horiek izutu ditzake, horiei estutasunak sortuz. Parke eta gune berdeetan, zaindu ezazu gertutik zure mas-kota.
- ❖ Azkenik, eta gomendio hau bereziki garrantzitsua da oinezkoentzat, kontuan

izan bizikleta oso garraibide isila dela. Askotan oinezkoa entzumenaz baliatzen da ibiltzerakoan. Orduan oinezkoa kalea gurutzatzen hasten da ez duelako gertu dagoen motor baten zaratarik entzun. Gogora ezazu, galtzada gurutzu bano lehen begira ezazu, txirrindulari bat pasatzear egon daiteke eta.

ZER EGIN

Espaloitik txirrindulari bat ziztu bizian badator –erabat debekatuta dago–.

- ❖ *Saiatu urduri ez jartzen. Seguruenik arazorik gabe saihestuko zaitu. Zauden tokian ez badiozu bidea oztopatzen, gelditu geratu. Bizikletan doan pertsonak harrapatu zaitzakeela uste baduzu, alde batera baztertu zalantzarik gabe. Kasu horietan, zalantza lagunik okerrean izan ohi da. Bien zalantzak istripu bat eragin dezake.*





4. Bidearen gainontzeko erabiltzaileak

1. Kuatriziklo arinak edo ziklomotorrak

Euskal errepideetatik mila kuatriziklo inguru dabilta. Gidabaimenik behar ez duten miniauto horiek geroz eta ugariagoak dira, batez ere landa-guneetan. Errepidean ibilgailu horietako bat topatzen baduzu, gogoratu ziklomotor bat bailitzan jokatatu behar duzula.

Kuatrizikloa beti bazterbidetik ibili behar da. Autoan bazoaz, kontuz ibili aurreraterakoan, zentzuzko alboko distantzia mantendu.

Bideak ez badu bazterbiderik eta kuatrizikloa erreiarene erditik badoa, ez presatu gidaria. Ez ezazu klaxona jo ezta argiekin distirarik egin ere, debekatuta baitago eta miniautoaren gidaria urduri jarri besterik ez duzu egingo. Kontuan izan ibilgailu horiek gehien erabiltzen dituztenak pertsona helduak direla. Lasai egon zaitez eta trafiko-arauek baimentzen dutenean aurreratu ezazu.

2. Ibilgailu bereziak eta nekazaritzakoak

Gidatzen ari zaren bitartean errepidean ibilgailu berezi edo nekazaritzako bat to-

patzen baduzu arretaz gidatu. Lehenda-bizi, errespetu ezazu gutxieneko segurtasun-tartea, izan ere, konboiak aurrez ohartarazi gabe balaztatu dezake eta zama mugitu daiteke.

Beti segurtasun baldintzetan aurreratu. Kontuan izan ibilgailu mota horiek (zabaleran eta batez ere luzeran) ohiko ibilgailuak baino handiagoak direla eta zailagoa izango dela, beraz, aurreratzea.

Beste behin, pazientzia izan eta ez hasterretu beste autoek konboia aurrera dezaun presatzen bazaituzte. Inolako arrisurik ez dagoela ziur zaudenean bakarrik aurrera ezazu.



Kuatrizikloekin pazientzia eduki.

3. Galtzadan dauden animaliak

Kontuan izan behar da errepidea (autobia eta autobideak salbu) norbaitek gidatzen dituen etxeko animaliek ere erabil dezaketela. Hori bide alternatiborik existitzen ez den





Kontuz animaliekin.

BA AL ZENEKIEN...

Animalia basati gehienen begiek distira egiten dute iluntasunean autoaren argiek argitzean. Horrek arreta areagotzeko lehenengo alarma-seinalea izan behar du.

...?

kasuetan soilik gertatzen da. Nabarmendu behar da era berean balitekeela galtzadan espezie basatiak edo kontrolik gabeko ganadua bat-batean azaltzea.

Urtero gora egiten du horrek sortzen dituen istripu-kopuruak. Estatuan, 2004an, guztira animaliak zerikusia izan zuten 6.225 ezbehar izan ziren, horien %70, espezie zinegetikoak izan ziren (basurdeak eta orkatzak, batez ere).

Ezusteko bat saihesteko modu onena behar bezala seinaleztatutako guneetan abiadura murriztea da. Era berean, gidariak bidearen gainontzeko erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen ez duenean soilik saihestu behar du animalia.

ZER EGIN

Jabeak gidatutako etxeko animalia talde batekin topo egiten badut

✂ *Zuk ez duzu lehentasuna ondoko kasuetan:*

1. Behar bezala seinaleztatutako abelbideetan.
2. Zure ibilgailuarekin beste bide batean sartzeko bira egiten duzunean eta hori gurutzatzen ari diren animaliak daudenean, horientzako pasagunerik ez bada-go ere.
3. Ibilgailuak abelbiderik ez duten animaliek hartutako bazterbide bat gurutzatzen duenean.

ZER EGIN

Animalia basati bat harrapatzen duzanean.

✂ *Lehendabiziko gauza da istripuaren lekua behar bezala seinaleztatzea eta Er-tzaintzari deitzea.*

Nork hartzen du kalteen ardura?

✂ *Istripua jasan duen gidariak trafiko-araudia hautsi badu (gehiegizko abiadura, mozkorkeria...) erantzukizuna zuzenean berari dagokio 17/2005 legeko Bederatzi-garren Xedapen Gehigarriaren arabera.*

Ezbeharra izan duen autoa behar bezala bazezilen, kalteak ordaintzea inguruko ehiza-lursailen jabeari edo adminis-trazioari dagokio, istripua jarduera zinegetikoak zuzenean eraginda izan den ala ez kontuan harturik.



5. Eranskina

Helbide eta telefono baliagarriak:

- ✦ EUSKO JAURLARITZA: www.euskadi.net
Trafiko Zuzendaritza:
Tel.: 945 018 744
- ✦ TRAFIKOREN INFORMAZIOA:
<http://www.trafikoa.net>
Tel.: 902112 088
- ✦ Bizkaian, zure mugikorrean jaso ditzakezu trafiko arazoak buruzko informazioa: www.bizkaimove.net
- ✦ DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO (DGT)
Tel.: 900123 505
- ✦ PUNUZKO BAIMEN BERRIA:
www.permisoporpuntos.es
- ✦ LARRIALDIAK:
SOS Deiak: 112
DYA: 94 410 10 10
- Cruz Roja: 902 222 292
Bomberos: 080
- ✦ KOTZEA PARTITZEKO:
www.compartir.org
- ✦ HIRIKO TXIRRINDULAREN BILBOKO ELKARTEA: www.bizibizi.org
- ✦ HIRIKO TXIRRINDULAREN GASTEIZKO ELKARTEA:
www.pagina.de/bizikleteroak
- ✦ HIRIKO TXIRRINDULAREN DONOSTIAKO ELKARTEA: www.kalapie.org
- ✦ BIZIKLETAREN DEFENTSAKORDINAKUNDEA: www.conbici.org